



ELGOIBARKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANAREN BALORAZIO OROKORRA

(2003-2006)

Elgoibarren, 2006ko azaroa

**Egileak: Kristina Zuatzubizkar
Nerea Lodoso
EBPN garatzeko teknikariak**

1. Udalen partaidetza EBPNN.
2. EBPN garatzeko ezinbesteko betebeharrak.
3. Urtez urte landutako esparru, neurri eta ekintzak.
4. Euskara biziberritzeko planaren baitan antolatutako ekintzak (2003-2006)
5. Euskara zerbitzuaren dimentsionamendu bilakaera.
6. Euskara aurrekontu orokorraren bilakaera.
7. Euskara sustatzeko egitasmoetara bideratutako aurrekontuaren bilakaera.
8. Udalak jasotako dirulaguntzak.
9. Teknikarien hausnarketa.

1. UDALEN PARTAIDETZA EBPNn:

Elgoibarko Udalari dagokionez, aurten bukatuko da EBPNren lehen fasea, beraz, Euskararen Aholku Batzordearen aurrean balorazio bat egin beharra ikusi dugu.

2003an 13 erakundek onartu zuten EBPN eta gehienek 3-4 urtekoa, aitzindarien artean sartu zen, beraz, Elgoibarko Udala (2003ko maiatzaren 20an onartu zuten Elgoibarko Udalbatzak).

Erakunde horiei 2004an beste 33 erakunde batu zitzaizkien eta 2005ean beste 33 erakundek jarri zuten Plan estrategikoa indarrean. Erakunde horien artean udalen mankomunitateak ere sartuta daudela kontuan izanik, 2005ean 81 udal ari ziren EBPN garatzen.

Hortaz, EBPN onartuta dutenak eta garatzeko lehen urratsak ematen hasi berri direnak kontuan harturik, guztira, 94 udaletara zabaldu da EBPN, beraz, nabaria izan da EBPNren hedapena.

2. EBPN GARATZEKO EZINBESTEKO BETEBEHARRAK:

Hasierako diagnosiaz gain, horrelako plan batek urtero eskatzen dituen eginbeharrak ugari dira:

1. **Aurrekontu proposamen orokorra:** Udalaren aurrekontu orokorra eta euskara aurrekontuaren arteko bilakaera.
2. **Kudeaketa Planaren aurrekontua:** urtean zehar garatuko diren ekintza guztien aurrekontua.
3. **Urte bakoitzeko kudeaketa plana:** helburu, esparru, neurri eta ekintzak. Urte horretan aurreikusita dauden ekintzen helburua, azalpena, nori zuzenduta dagoen, eragileak, aurreikusitako aurrekontua.
4. **Kudeaketa planaren garapena Plan estrategikoarekiko:** EBPNn jasotako osagaietatik zenbat garatuko diren urtean zehar.
5. **Aurreko urteko jardunarekiko erkaketa:** aurreko urteekiko berriak diren ekintzak e.a.
6. **Kudeaketa Planaren betetze-maila eta ebaluazioa** egitea: ekintza bakoitzaren egoera, aurrekontu erreala, adierazle errealak eta neurri eta esparruen balorazio kualitatiboa.
7. **Udal barruko euskara planaren egoera jasotzea:** hizkuntza eskakizunak.
8. **Euskara Zerbitzuaren egoera jasotzea:** giza-baliabideak.
9. **Urteko Komunikazio plana**
10. **Euskararen Aholku Batzordearen jardunaren berri ematea.**
11. **Gogobetetasun inkesta betetzea urtero:** HPSk eskatuta, teknikariek urtero egin dute EBPNren balorazioa, ahuleziak, indarguneak eta iradokizunak zehaztuz.

Hau guztia bideratu ahal izateko, aplikazio informatikoa sortu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta txosten asko aplikazioak berak ematen baditu ere, aurrez aplikazioan datu ugari sartu direlako gertatzen da hori.

3. URTEZ URTE LANDUTAKO ESPARRU, NEURRI ETA EKINTZAK:

Biztanle kopurua eta egoera soziolinguistikoaren arabera, EBPNren hamar eredu desberdin prestatu zituen HPSk udaletan ezartzeko.

Elgoibarko Udalari C2 eredia dagokio, eredu honetan 10.000 biztanletik gora eta euskaldunen portzentajea %50etik %70era bitartekoa duten udalak sartzen dira. Eredu edo talde honen barruan 7 udal daude sartuta (Amorebieta-Etxano, Beasain, Bergara, Elgoibar, Hondarribia, Mungia eta Tolosa)

Ondorengoak dira landu diren helburu estrategikoak:

I TRANSMISIOA: Euskara, belaunez belaun eta etenik gabe ondorengoetaratzea

- Irakaskuntza
- Helduen euskalduntze-alfabetatzea
- Euskararen familia bidezko jarraipena

II ERABILERA: Euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik beste erabilera-eremuetara zabaltzea da

- Administrazioa
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak
- Lan-arloa
- Aisia
- Kirola

III ELIKADURA: Hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko, etengabe elikatzea

- Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
- Hedabideak
- Liburugintza
- Kulturgintza

Hona hemen urtez urte landu diren helburu, esparru, neurri eta ekintzen zenbatekoak:

URTEA	Helburu estrategikoak	Esparruak	Neurriak		Ekintzak	
			proposatu	betetze maila	proposatu	betetze maila
2003	3	12	25	%92	82	% 84,1
2004	3	12	24	%100	87	% 88,5
2005	3	12	23	%100	90	% 91,1
2006	3	12	23	%100	93	?

4. EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLANAREN BAITAN ANTOLATUTAKO EKINTZAK (2003-2006)

Hona hemen EBPnren helburu estrategikoak garatzeko, 2003, 2004, 2005 eta 2006 urteetan Udalak antolaturiko edota Udalaren dirulaguntzaz antolatutako ekintzak. Ekintza horiek ahal izan dugun neurrian, alde batetik, esparru ezberdinen arabera bildu ditugu. Bestalde, saiatu gara Euskara Batzordeak bakarka, edo besteren batekin elkarlanean antolatutako ekintzak bereizten:

* 2003 urteari dagozkionak:

Euskara Batzordearen bidez bideratutakoak

TRANSMISIOA:

- ☞ Musika Eskolan Normalkuntza Plana burutzeko dirulaguntza ematea (irakasleek euskara ikas dezaten diru-laguntza ematea).
- ☞ Ikastetxeetako (Herri Eskola, Ikastola, Institutua, Pilar ikastetxea) Normalkuntza Planak bideratzeko dirulaguntzak ematea.
- ☞ Ikastetxeei ingurugiro egonaldietarako diru-laguntzak ematea.
- ☞ IMHri euskara normalizatzeko plana bideratzeko diru-laguntza ematea.
- ☞ Eskoletan euskararen erabilera sustatzeko materiala banatzea (CDak, liburuak...)
- ☞ Idatziak liburuaren argitalpena eta banaketa (4.000 ale)
- ☞ Euskarazko ikastaroak (UEU...) egiteko diru-laguntzak ematea.
- ☞ Haur jaioberria duten gurasoentzako sentsibilizazio kanpaina (CDak + eskutitza+triptikoak).
- ☞ Euskarazko produktuen katalogoa.
- ☞ DEBABA Udal Euskaltegiaren funtzionamendua bermatzea.
- ☞ AEK euskaltegiaren funtzionamendurako diru-laguntza ematea (langabetuentzako, ikasleentzako, pentsiodunentzako, gurasoentzako, beketarako, sor litezkeen talde berezietarako, lokalen garbiketarako, Korrika...)
- ☞ Euskaltegietara, barnetegietara joateko diru-laguntzak.
- ☞ Ikastaro sektorialen eskaintza sustatzea euskaltegiekin batera: gurasoak, alfabetatze, merkataritza...
- ☞ Ikasle txartela.

ERABILERA:

- ☞ Euskara Zerbitzua HPSk proposatutako neurrietara egokitzea.
- ☞ Udaleko erabilera plana inplementatzea (hizkuntza eskakizunak, lanpostu berriak, ...).
- ☞ Kirola Euskaraz egitasmoa bideratzea (kiroletarako fitxak egiteko bekak eskaintzea, fitxak argitaratzea...)
- ☞ Gurasoak sentsibilizatzeko kanpaina egitea Kirol Patronatuarekin elkarlanean.
- ☞ Euskararen kale-erabilerak izan duen bilakaeraren berri izateko neurketak egitea.

ELIKADURA EDO KALITATEA:

- ☞ Elgoibarko berbetaren azterketa bideratzea
- ☞ Kale-izenak zuzen jartzeko proposamenak
- ☞ Errotulazioa euskara hutsean jartzeko diru-laguntzak ematea.
- ☞ Izen-abizenak euskal grafiaz zuzen jartzeko kanpaina bideratzea.
- ☞ Zinea euskaraz eskaintzea.
- ☞ Pailazo, antzerki emanaldiak antolatzea.
- ☞ Erakusketak antolatzea.
- ☞ Euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina bereziak egitea: Kantagintza.
- ☞ Nazio mailako erakundeei ekintzak antolatzeko diru-laguntzak ematea: (Kilometroak, Ibilaldia, Araban Euskaraz, Nafarroa Oinez, Berria, Kontseilua, SEI...).
- ☞ Irabazi asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak ematea.
- ☞ Euskarazko Kultur ekoizpenak sustatzeko lan egitea.
- ☞ Kultur ondarearen zabalkundea egitea.

Elgoibarko Izarra elkartearekin Udalak sinatutako hitzarmenaren bidez bideratutakoak

- ☞ BARREN aldizkaria argitaratzea.
- ☞ Elgoibarren.net web orria egiteko laguntza eskaintzea.
- ☞ Gurean bai-Merkataritza egitasmoa bideratzea (teknikaria hautatzeko prozesu guztia, merkatarientzako euskara ikastaroa, merkatarientzako hiztegia, zabalik-itxita kartela, gurean ere euskaraz dioen mahai-gainekoa...).
- ☞ Gurean bai-Elkarteak egitasmoa bideratzea (teknikariak proiektua utzi zuen, eta proiektuak abian urte dezente zeramatzala ikusirik, bertan behera uztea erabaki zen, eta jarraipen lana egiteko irizpideak ezarri ziren).
- ☞ Transmisiorako Plan Integralaren egitasmoa abian jartzeko prozesu osoa aurrera eramatea.
- ☞ ATXUTXIAMAIIKA aisialdi proiektua (ATXUTXIAMAIIKA, GAZ-T, GIG, Biluzik).
- ☞ ARIGERA euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko proiektua bideratzea (teknikari berria hautatzeko prozesu osoa).
- ☞ Nazio mailako ekimenak bultzatzea.
- ☞ Kultur ondarearen arloko ekimenak bultzatzea.

* 2004 urteari dagozkionak:

Euskara Batzordearen bidez bideratutakoak

TRANSMISIOA:

- ☞ Musika Eskolan Normalkuntza Plana burutzeko dirulaguntza ematea (irakasleek euskara ikas dezaten diru-laguntza ematea).
- ☞ Ikastetxeetako (Herri Eskola, Ikastola, Institutua, Pilar ikastetxea) Normalkuntza Planak bideratzeko dirulaguntzak ematea (diru-laguntzak emateko irizpide berriak ezartzea).
- ☞ Ikastetxeei ingurugiro egonaldietarako diru-laguntzak ematea.
- ☞ Ikastetxeetan ahozkoasuna eta bertsolaritza proiektua bideratzeko diru-laguntza ematea.
- ☞ Elgoibar ikastolak antolatzen duen irrati lehiaketarako laguntza teknikoa eskaintzea.
- ☞ IMHri euskara normalizatzeko plana bideratzeko diru-laguntza ematea.
- ☞ Eskoletan euskararen erabilera sustatzeko materiala banatzea (CDak, liburuak...)
- ☞ Euskarazko ikastaroak (UEU...) egiteko diru-laguntzak ematea.
- ☞ Haur jaioberria duten gurasoentzako sentsibilizazio kanpaina (CDak + eskutitza+triptikoak).
- ☞ Euskarazko produktuen katalogoa.
- ☞ DEBABA Udal Euskaltegiaren jarduera bermatzea.
- ☞ AEK euskaltegiaren funtzionamendurako diru-laguntza ematea (langabetuentzako, ikasleentzako, pentsiodunentzako, gurasoentzako, bekatarako, sor litezkeen talde berezietarako, lokalen garbiketarako, ikastaro berezietarako (Mikel Markez), euskaltegira etortzen diren ikasle mendaroarrak elgoibartarrak dauden baldintza beretan egon daitezen saiakera egitea...)
- ☞ Euskaltegietara, barnetegietara joateko diru-laguntzak.
- ☞ Ikastaro sektorialen eskaintza egitea euskaltegiekin batera: gurasoak, alfabetatze, merkataritza...
- ☞ Ikasle txartela izeneko kanpaina antolatzea.

ERABILERA:

- ☞ Euskara Zerbitzua HPSk proposatutako neurrietan mantentzeko dirulaguntza ematea.
- ☞ Udaleko erabilera plana inplementatzea (hizkuntza eskakizunak, lanpostu berriak, ...).

- ☞ Udal espedienteak edo tramiteak www.elgoibar.org web orrian herritarren esku jartzea.
- ☞ Udal mailako hizkuntza-politikari buruzko ikastaroan parte hartzea
- ☞ Teknikarientzako Teknikari programan parte hartzea.
- ☞ Kirola Euskaraz egitasmoa bideratzea (kiroletarako fitxak egiteko bekak eskaintzea, fitxak argitaratzea...).
- ☞ Kirol Patronatuaren eta Musika Eskolaren diagnosia eguneratzea eta erabileraren jarraipena egitea.
- ☞ Itzulpen memoriei buruzko proiektua onartzea.
- ☞ Gurean bai-Merkataritza egitasmoaren baitan, establezimenduetan jartzeko txartelak egitea.
- ☞ Bilalan.net. Lana aurkitzeko euskarazko atariari diru-laguntza eskaintzea.
- ☞ Debabarreneko Euskara batzordeekin elkarlanean, lan munduan euskararen erabilera areagotzeko proiektua aztertzea.
- ☞ Udalean, ikastetxeetan, erabilera plana abian duten enpresetan, euskarazko lan kontratuen zabalkundea egitea.
- ☞ Debabarreneko Euskara batzordeekin elkarlanean, begirale ikastaroa antolatzea.
- ☞ Elgoibarko osasun etxearen euskara-egoerari buruzko informazioa biltzea.

ELIKADURA EDO KALITATEA:

- ☞ Euskararen kale-erabilerak izan duen bilakaeraren berri izateko neurketak egitea.
- ☞ Elgoibarko berbetaren azterketa argitaratzea (Euskara Batzordearen esku egon ez diren hainbat arrazoi medio, atzeratu egin da ekintza hori).
- ☞ Kale-izenak zuzen jartzeko proposamenak
- ☞ Errotulazioa euskara hutsean jartzeko diru-laguntzak ematea.
- ☞ Zinea euskaraz eskaintzea.
- ☞ Pailazo, antzerki emanaldiak antolatzea.
- ☞ Bertsozale elkarteak antolatutako “Mintza-jolas” proiektua bideratzeko diru-laguntza eskaintzea.
- ☞ Euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina bereziak egitea: Kantagintza.
- ☞ Nazio mailako erakundeei ekintzak antolatzeko diru-laguntzak ematea: (Kilometroak, Ibilaldia, Araban Euskaraz, Nafarroa Oinez, Berria, Kontseilua, SEI...).
- ☞ Irabazi asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak ematea.
- ☞ Euskarazko Kultur ekoizpenak sustatzeko lan egitea.
- ☞ Kultur ondarearen zabalkundea egitea (Urretxindorra liburu-dendari liburuak saldu, Badihardugu elkartearen bidez, Durangoko azokara

liburuak bidali, "Elgoibartarren esanetan" lanean hizkuntza irizpideen jarraipena...).

Elgoibarko Izarra elkartearekin Udalak sinatutako hitzarmenaren bidez bideratutakoak

- ☞ BARREN aldizkaria argitaratzea.
- ☞ Asteon aldizkariaren banaketa.
- ☞ Elgoibarren.net web orria egiteko laguntza eskaintzea (2003ko aurrekontutik)....
- ☞ Gurean bai-Merkataritza egitasmoa bideratzea.
- ☞ Haur eta gaztetxoentzako plan integrala.
- ☞ GAZ-T aisialdi egitasmoa.
- ☞ GIG eta Biluzik zerbitzuak.
- ☞ Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko ekintzak: tertuliak, BARRENeko "gehigarria".
- ☞ Elgoibarko berbetiari buruzko ikastaroa antolatzea.
- ☞ Nazio mailako ekimenak bultzatzea.
- ☞ Kultur ondarearen arloko ekimenak bultzatzea.

* 2005 urteari dagozkionak:

Euskara Batzordearen bidez bideratutakoak

TRANSMISIOA:

- ☞ Musika Eskolan Normalkuntza Plana burutzeko dirulaguntza ematea (irakasleek euskara ikas dezaten diru-laguntza ematea).
- ☞ Ikastetxeetako Normalkuntza Planak bideratzeko dirulaguntzak ematea
- ☞ Ikastetxeei ingurugiro egonaldietarako diru-laguntzak ematea.
- ☞ Ikastetxeetan ahozkotasuna eta bertsolaritza proiektua bideratzeko diru-laguntza ematea.
- ☞ IMHri euskara normalizatzeko plana bideratzeko diru-laguntza ematea.
- ☞ Eskoletan euskararen erabilera sustatzeko materiala banatzea (CDak, liburuak...)
- ☞ Euskarazko ikastaroak (UEU...) egiteko diru-laguntzak ematea.
- ☞ Haur jaioberria duten gurasoentzako sentsibilizazio kanpaina (CDak + eskutitza+triptikoak).
- ☞ Euskarazko produktuen katalogoa.
- ☞ DEBABE Udal Euskaltegiaren jarduera bermatzea.
- ☞ AEK euskaltegiaren funtzionamendurako diru-laguntza ematea (langabetuentzako, ikasleentzako, pentsiodunentzako, gurasoentzako, beketarako, sor litezkeen talde berezietarako, lokalen garbiketarako, ikastaro berezietarako (Mikel Markez), KORRIKA laguntzaile txartela izeneko proiektua, KORRIKArako diru-laguntza ematea ...)
- ☞ Euskaltegiara, barnetegietara joateko diru-laguntzak.
- ☞ Ikastaro sektorialen eskaintza egitea euskaltegiekin batera: gurasoak, alfabetatze, merkataritza, ostalaritza...
- ☞ HABEK ikasleentzako diru-laguntzak bideratzeko prozesuan parte hartzea

ERABILERA:

- ☞ Euskara Zerbitzua HPSk proposatutako neurrietan mantentzeko dirulaguntza ematea.
- ☞ Udaleko erabilera plana inplementatzea (hizkuntza eskakizunak, lanpostu berriak, ...).
- ☞ Itzulpen memoriei buruzko proiektua inplementatzea.
- ☞ Kontseiluarekin lankidetzan, Udaleko hizkuntza politikaren jarraipena egitea.
- ☞ Kirola Euskaraz egitasmoa bideratzea (kiroletarako fitxak egiteko bekak eskaintzea, fitxak argitaratzea...).

- ☞ Debabarreneko Euskara batzordeekin elkarlanean, lan munduan euskararen erabilera areagotzeko proiektua aztertzen jarraitzea eta onartzea.
- ☞ Debabarreneko gainontzeko udalekin batera, bailarako telebistari buruzko proiektua aztertzea (proiektu hau ez da aurrera joan).
- ☞ Debabarreneko euskara batzordeekin elkarlanean, begirale ikastaroa antolatzea.
- ☞ Elgoibarko osasun etxearen euskara-egoerari buruzko informazioa biltzea, eta horren berri, EINBIOU herri-plataformari ematea.

ELIKADURA EDO KALITATEA:

- ☞ Euskararen kale-erabilerak izan duen bilakaeraren berri izateko neurketak egitea.
- ☞ Elgoibarko berbetaren azterketa argitaratzea (Euskara Batzordearen esku egon ez diren hainbat arrazoi medio, atzeratu egin da ekintza hori).
- ☞ Toponimia eta ageriko elementuak euskaraz zuzen erabiltzea.
- ☞ Errotulazioa euskara hutsean jartzeko diru-laguntzak ematea (2005 urtean diru-laguntza hau ostalaritzako establezimenduei ere emateko erabakia hartu da).
- ☞ Zinea euskaraz eskaintzea.
- ☞ Pailazo emanaldiak antolatzea.
- ☞ Bertsozale elkarteak antolatutako “Mintza-jolas” proiektua bideratzeko diru-laguntza eskaintzea.
- ☞ Euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina bereziak egitea: Kantagintza.
- ☞ Nazio mailako erakundeei ekintzak antolatzeko diru-laguntzak ematea: (Kilometroak, Ibilaldia, Araban Euskaraz, Nafarroa Oinez, Berria, Kontseilua, SEI...).
- ☞ Irabazi asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak ematea.
- ☞ Euskarazko Kultur ekoizpenak sustatzeko lan egitea.
- ☞ Kultur ondarearen zabalkundea egitea (Urretxindorra liburu-dendari liburuak saldu, Badihardugu elkartearen bidez, Durangoko azokara liburuak bidali...).

Elgoibarko Izarra elkartearekin Udalak sinatutako hitzarmenaren bidez bideratutakoak

- ☞ BARREN aldizkaria argitaratzea.
- ☞ Gurean bai-Merkataritza egitasmoa bideratzea.
- ☞ Haur eta gaztetxoentzako PLAN INTEGRALA.
- ☞ GAZ-T aisialdi egitasmoa.
- ☞ GIG eta Biluzik zerbitzuak.

- ☞ Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko ekintzak: tertuliak, BARRENEko “gehigarria”.
- ☞ Elgoibarko Izarraren 40. urteurrena dela eta argitaratutako liburua.
- ☞ Nazio mailako ekimenak bultzatzea.
- ☞ Kultur ondarearen arloko ekimenak bultzatzea.

* 2006 urteari dagozkionak:

Euskara Batzordearen bidez bideratutakoak

TRANSMISIOA:

- ☞ Ikastetxeetako Normalkuntza Planak bideratzeko dirulaguntzak ematea
- ☞ Ikastetxeei ingurugiro egonaldietarako diru-laguntzak ematea.
- ☞ Ikastetxeetan ahozkoitasuna eta bertsolaritza proiektua bideratzeko diru-laguntza ematea.
- ☞ IMHri euskara normalizatzeko plana bideratzeko diru-laguntza ematea.
- ☞ Eskoletan euskararen erabilera sustatzeko materiala banatzea (CDak, liburuak...)
- ☞ Euskarazko ikastaroak (UEU...) egiteko diru-laguntzak ematea.
- ☞ Haur jaioberria duten gurasoentzako sentsibilizazio kanpaina (CDak + eskutitza+triptikoak).
- ☞ Euskarazko produktuen katalogoa.
- ☞ DEBABA Udal Euskaltegiaren jarduera bermatzea.
- ☞ AEK euskaltegiaren funtzionamendurako diru-laguntza ematea (langabetuentzako, ikasleentzako, pentsiodunentzako, gurasoentzako, beketarako, sor litezkeen talde berezietarako, lokalen garbiketarako, ikastaro berezietarako (Mikel Markez) diru-laguntza ematea ...)
- ☞ Euskaltegietara, barnetegietara joateko diru-laguntzak.
- ☞ Ikastaro sektorialen eskaintza egitea euskaltegiekin batera: gurasoak, alfabetatze, merkataritza, ostalaritza...
- ☞ HABEK ikasleentzako diru-laguntzak bideratzeko prozesuan parte hartzea

ERABILERA:

- ☞ Euskara Zerbitzua HPSk proposatutako neurrietan mantentzeko dirulaguntza ematea.
- ☞ Udaleko erabilera plana inplementatzea (hizkuntza eskakizunak, lanpostu berriak, ...).
- ☞ Itzulpen memoriei buruzko proiektua inplementatzea.

- ☞ Kontseiluarekin lankidetzan, Udaleko hizkuntza politikaren jarraipena egitea.
- ☞ Kirola Euskaraz egitasmoa bideratzea (kiroletarako fitxak egiteko bekak eskaintzea, fitxak argitaratzea...).
- ☞ Debabarreneko Euskara batzordeekin elkarlanean, lan munduan euskara planak sustatzeko egitasmoa abian jartzea.
- ☞ Elkarte gastronomiko eta dendetan aplikazio informatikoak euskara hutsean jartzeko dirulaguntzak bideratzea.
- ☞ Debabarreneko Euskara batzordeekin elkarlanean, begirale ikastaroa antolatzea.
- ☞ Debabarreneko euskara batzordeekin elkarlanean, begirale ikastaroa antolatzea.
- ☞ Elgoibarko osasun etxearen euskara-planari buruzko informazioa biltzea.

ELIKADURA EDO KALITATEA:

- ☞ Euskararen kale-erabilerak izan duen bilakaeraren berri izateko neurketak egitea.
- ☞ Elgoibarko berbetaren azterketa argitaratzeko hileroko jarraipena.
- ☞ Toponimia eta ageriko elementuak euskaraz zuzen erabiltzea.
- ☞ Errotulazioa euskara hutsean jartzeko diru-laguntzak ematea (2005 urtean diru-laguntza hau ostalaritzako establezimenduei ere emateko erabakia hartu da).
- ☞ Zinea euskaraz eskaintzea.
- ☞ Pailazo emanaldiak antolatzea.
- ☞ Bertso erakusketa antolatzea.
- ☞ Bertsozale elkarteak antolatutako “Mintza-jolas” proiektua bideratzeko diru-laguntza eskaintzea.
- ☞ Euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina bereziak egitea: Kantagintza.
- ☞ Nazio mailako erakundeei ekintzak antolatzeko diru-laguntzak ematea: (Kilometroak, Ibilaldia, Araban Euskaraz, Nafarroa Oinez, Berria, Kontseilua, SEI...).
- ☞ Irabazi asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak ematea.
- ☞ Euskarazko Kultur ekoizpenak sustatzeko lan egitea.
- ☞ Kultur ondarearen zabalkundea egitea (Urretxindorra liburu-dendari liburuak saldu, Badihardugu elkartearen bidez, Durangoko azokara liburuak bidali...).
- ☞ 2007 urtean ospatuko den Euskal Jaiaren mendeurrenari buruzko egitasmoa aztertzea.

Elgoibarko Izarra elkartearekin Udalak sinatutako hitzarmenaren bidez bideratutakoak

- ☞ BARREN aldizkaria argitaratzea.
- ☞ Gurean bai-Merkataritza egitasmoa bideratzea.
- ☞ Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko ekintzak: tertuliak, BARRENeko “gehigarria”.
- ☞ Elgoibarko Izarraren 40. urteurrena dela eta argitaratutako liburua.
- ☞ Nazio mailako ekimenak bultzatzea.
- ☞ Kultur ondarearen arloko ekimenak bultzatzea.
- ☞ BARREN aldizkaria argitaratzea.
- ☞ elgoibarren.net web gunea abian.
- ☞ Gurean Bai-Merkataritza egitasmoa bideratzen jarraitzea.
- ☞ Haur eta gaztetxoentzako errefortzu saioak eskaintzea.
- ☞ Kuadrillategi izeneko egitasmoa abian jartzea.
- ☞ Euskaldun berrientzako Tertuliak izeneko programa eskaintzen jarraitzea.
- ☞ Nazio mailako ekimenak bultzatzea.
- ☞ Kultur eskaintza sustatzea.

2006ra arte Euskara Batzordeak Elgoibarko Izarrarekin elkarlanean burutu dituen ekintzak, eta aurrerantzean, Gazteria Sailarekin elkarlanean burutuko direnak.

- ☞ Atxutxiamaiaka aisialdi egitasmoa.
- ☞ GAZ-T aisialdi egitasmoa..
- ☞ GIG eta Biluzik zerbitzuak
- ☞ Proiektu horiek sortzen dituzten gastu orokorrak.

5. EUSKARA ZERBITZUAREN DIMENTSIONAMENDU BILAKAERA:

Giza baliabideei dagokienez ere, EBPN abian jartzeak, orokorrean, euskara zerbitzuak indartzea ekarri du. Elgoibarko Udalaren kasuan ere gauza bera gertatu da eta Udalak Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin eta DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitateko zuzendariarekin bilera ugari egin ondoren, 2003ko otsailetik aurrera, ordura arte egun erdiko lanjardunaz udalean lanean aritu zen DEBABEko langilea, lanjardun osoz hasi zen lanean EBPNko teknikari gisa.

Gaur egun hiru langile ari dira euskara lanetan Elgoibarko udalean: itzultzailea eta bi teknikari.

Hala ere, kontuan izan behar da HPSk bere garaian burutu zuen EAeko Herri Erakundeetako Euskara Zerbitzuen azterketaren ondorioz, lau langile izan beharko lituzkeela Elgoibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak: bi euskara teknikari, itzultzaile bat eta administrari bat. Hauxe da udal tipologia kontuan hartuta, C2 ereduan sartzen diren udalei egokitutako Euskara Zerbitzuaren dimentsionamendu-proposamena.

6. EUSKARA SAILAREN AURREKONTUAREN BILAKAERA:

Diru baliabideei dagokienez, EBPN kasu batzuetan udalek beren euskarako aurrekontuak indartzeko lagungarria izan da. Horrela izan da Elgoibarko Udalaren kasuan eta horren adierazgarri gisa ondorengo taulan ageri diren kopuruak:

URTEA	EUSKARA AURREKONTUA	IGOERA	UDAL AURREKONTU OSOAREKIKO %
2002	331.259,07 eur.	+ % 11,2	% 3,5
2003	378.516,57 eur.	+ % 14,2	% 3,7
2004	434.113,28 eur.	+ % 14,6	% 3,3
2005	455.059,15 eur.	+ % 4,8	% 3,2
2006	400.225,63 eur	- % 12(jaitsiera)	% 2,4

Ikus dezakegunez, Euskara Batzordeak 2003 eta 2005 urteen bitartean izan duen aurrekontuak etengabe egin du gora, urte horietan zehar. Era berean, adierazi behar dugu, igoerarik nabarmenenak 2002 urtetik 2003 urtera eta 2003tik 2004ra eman direla. Kopuru horietan Euskara Saileko giza baliabideei dagokienak ere sartzen dira.

2006an, berriz, deigarria da aurrekontuaren jaitsiera baina horrek badu bere arrazoia, aisialdiko egitasmo osoaren aurrekontua Gazteria Batzordeak hartu baitu bere gain. Hala ere, aisialdiko ekintza horiek euskara sustatzekoak ere badiren neurrian, 2006ko kudeaketa planean jasota gelditu dira; baita, horiei dagozkien kostuak ere. Eta hori islatuta geratuko da 2006ko kudeaketa planaren aurrekontuan.

7. EUSKARA SUSTATZEKO EGITASMOETARA BIDERATUTAKO AURREKONTUAREN BILAKAERA:

Atal honetan, Euskara Siletik bideratutako ekintzetaz gain, Kultura Sailak euskaraz antolatutako egitasmoak, Gazteria Sailak antolatutakoak eta Udalak Elgoibarko Izarra elkartearekin elkarlanean ere antolatutakoak hartzen dira kontuan: aisialdia, antzerkia, musika, Gurean bai...

URTEA	KUDEAKETA PLANEKO EKINTZEN GASTUA	IGOERA	UDALAK JASOTAKO DIRULAGUNTZA
2002	331.259,07 eur.	+ % 11,2	9.849 euro
2003	372.589,47 eur.	+ % 12,4	50.755,5 euro
2004	476.482,01 eur.	+ % 27,4	37.036,29 euro
2005	479.938,47 eur.	+ % 0,72	20.248,93 euro
2006	505.241,91 eur (KP aurrekontua)	+ % 5,27	29.931,75 euro

Arestian esan dugun bezala, diru kopuru horiek Elgoibarko Udalak euskararen normalkuntzan gastatu duena islatzen dute, ez Euskara Batzordeak gastatu duena soilik.

2003-2006 urteko aurrekontuetan euskararen normalizaziorako burutu diren egitasmoak eta ekintzak baino ez daude jasota. Hau da, aurrekontu horietan ez dira Euskara Sailaren giza baliabideetarako gastuak sartzen.

Jarraian datorren taula Jaurlaritzako HPSk egindakoa da. Bertan, 2006ko Kudeaketa Planaren aurrekontua jasotzen da, eremu estrategikoetan banatuta, eta EBPNren eredu bereko gainontzeko udalen batz bestekoarekin konparatzen da.

Kudeaketa Planaren aurrekontua

EBPN – AURREKONTUA 2006	ELGOIBAR	%	EREDUKO UDAL GUZTIAK ¹ (Bataz beste)	%
HELBURU NAGUSIA	505.241,91	100,00	526.010,25	100,00
1. Helburu Estrategikoa	145.656,53	25,81	169.259,43	32,18
2. Helburu Estrategikoa	206.519,78	40,87	199.284,88	37,89
3. Helburu Estrategikoa	153.065,60	27,12	157.465,95	29,94

¹ Dagokion ereduko udalen batz bestekoa (aplikazioan dagoen informazioaren arabera).

8. UDALAK JASOTAKO DIRULAGUNTZAK:

Elgoibarko Udala EBPNn sartzearekin batera, Jaurlaritzatik eta Diputaziotik jasotako laguntza ekonomikoa handituz joan da. Hala ere, kontuan izan behar da udal batek jasotzen duen dirulaguntza, urte batetik bestera euskarazko ekintzetarako egiten duen diru-aportazio gehikuntzaren arabera izan dela. Beraz, gerta liteke udal batek diru-kopuru handia jartzea baina urte batetik bestera euskara aurrekontuan diru gehikuntza handiegirik egiten ez badu, horren ondorioz, diru gutxi jasotzea.

Ondorengoak dira orain arte Udalak Diputazio eta Jaurlaritzatik euskararako jaso dituen dirulaguntzak:

URTEA	UDALAK JASOTAKO DIRULAGUNTZA
2002	9.849 euro
2003	50.755,5 euro
2004	37.036,29 euro
2005	20.248,93 euro
2006	29.931,75 euro

9. TEKNIKARIEN HAUSNARKETA:

EBPNren indarguneak:

- **EBPNk plangintza sistematizatzeko era bat eskaintzen digu.** Udal guztiok metodo berarekin lan egitearen onurak: udalen lana konparatu ahal izatea, elkarren berri izatea, esperientziak trukatzea...
- **Planaren egokitasuna:** Planaren diseinutik bertatik hartu izan dira kontuan herrien ezaugarriak, horietara egokitu dira helburuak, landu beharreko esparruak, neurriak eta ekintzak, eta horiei eman beharreko lehentasuna.
- **EBPN metodo integrala** da: herrian euskararen sustapenerako egiten diren lan eta egitasmo guztiak hartzen ditu bere baitan. Gainera, edukiak egokitzeko aukera ematen du: esparruak, neurriak eta ekintzak aukeratzeko bidea ematen du, eta berriak sortzeko. Hala ere, lehendik zeuden plangintzak egokitzeko eta EBPNn kokatzeko ahalegin berezia egin behar izan zuen Udalak.
- EBPN kudeatzeko **aplikazio informatikoari dagokionez**, hobetzeko asko badu ere, lana arintzeko asmoz sortu zuten, eta hiru urte hauetan hobekuntzak egin dira teknikarion iritziak eta eskaerak kontuan hartuta.
- EBPN martxan jartzeko **ezinbesteko baldintza da Udalak erabilera plana** onartuta izatea. Hori logikoa da, administrazioak parte hartu behar du prozesu horretan, beraz, eredu izan behar du.
- **Ordezkeri politikoaren parte-hartzea** bermatu nahi du EBPNk, ez soilik euskara batzordeburuena. Momentu ezberdinetan gauzatu da parte-hartze hori: EBPN martxan jartzeko konpromisoa hartzerakoan, aurkezpenean, plana eta aurrekontuak adostu eta onartzeko Jaurlaritza eta Diputazioarekin egiten diren bileretan eta HPSk ordezkeri politikoei zuzenduriko ikastaroan baita ere.
- Eta dirulaguntzak; argi eta garbi geratu da EBPN onartu eta gauzatzen duten herriek dutela **lehentasuna dirulaguntza jasotzeko orduan.**
- EBPNren **zehaztasun maila altua** da eta esparruen banaketak ematen digu planaren ikuspegi orokorra. Argi erakusten du zer arlo landu diren eta zer ez.
- **Euskalgintzatik datozen egitasmoak EBPNn txertatu** dira. Izan ere, euskalgintza (ikastetxe, euskaltegi, euskara elkarte, kultur elkarte, herritar...) da Udalaren laguntzaile nagusia EBPN garatzeko orduan. Elgoibarko planaren oinarria ere elkarlana izan da, administrazioaren eta euskalgintzaren arteko elkarlana.
- **EBPN garatzeko eskainitako baliabideak** ere hor daude: lehen aipatu dugun aplikazio informatikoa, HPSren aholkularitza eta jarraipena, prozedura eta metodologia, dirulaguntzak...

EBPNren ahuleziak:

- Ekintzak baloratzeko orduan, teknikariaren esku gelditzen da ekintza horren "bideragarritasuna" eta "eraginkortasuna"; baina horiek baloratzeko **adierazlerik ez du aurreikusi EBPNk.**
- EBPN gauzatzeko **prozesuaren gidaritza oso-osorik administrazioak hartzen du bere gain**, nahiz eta gizarte eragileek ekarpenak egiteko aukera izan Euskararen Aholku Batzordearen bidez. Elgoibarko kasuan, esan beharra dago, euskalgintzako eragileek beti izan dutela euren proposamenak Udalaren Euskara Batzordean aurkezteko aukera, hori bai, aurrez gaia Euskara batzordeburuari azalduta. Eta edozein herritarrek aurkezturiko euskararekiko kezka, zalantza eta informazio eskaera ere Euskara Batzordearen bidez edota Euskara Sailaren bidez bideratu izan da.
- Behin Plan Estrategikoa eginda, urteko Kudeaketa plana egin behar da. Teknikarion lana **aplikazio informatikoan informazioa sartzea** da, aplikazioak berak sortzen ditu txostenak baina horiek ere badute zer hobetu. Arrisku handiena da **nahi baino denbora gehiago eskaini behar izatea eginkizun horri**. Azken baten, aplikazioan sartzen diren datuak dira HPSk ebaluatzen dituenak, eta dirulaguntzak horien arabera erabakitzen dira. Horregatik, arreta eta denbora asko eskatzen digun eginbeharra da.
- **Datu bilketan zalantzak** izaten ditugu batzuetan, adibidez, egitasmo bakar batekin neurri eta alor bat baino gehiago lantzen dira. Horren ondorioz, informazio bera hainbat esparrutan errepikatu behar izaten dugu.
- Dirulaguntzak emateko irizpideak baliagarriak izan dira euskara aurrekontuak igotzera bultzatzeko baina horrek ere badu bere alde txarra: udal batek euskara ekintzetarako aurrekontua igotzeko aukerarik ez badu, **epe motzean dirulaguntzarik gabe gelditzeko arriskua** du.
- Jasotako **dirulaguntzak egiaztatze lanak** bi alde ditu:
 - ohiko justifikazioak: memoriak, gastuak, sarrerak...
 - EBPNko kudeaketa-planak

Elgoibarko Udalak Diputaziotik eta Eusko Jaurlaritzatik jasotzen ditu dirulaguntzak. Eta gastatutako guztia zuritu behar da, ondoren, Diputazioak eta Jaurlaritzak dagokien kitapena egiteko. Burokrazia honen guztiak EBPN bera garatzeko denbora gutxiago izatea dakar.

- **Dirulaguntza ebazpena berandu** iristen da udalera, 2005eko dirulaguntzaren ebazpena adibidez urte bukaeran heldu zen udaletara. 2006an, berriz, irailean heldu da ebazpena, beraz, badirudi gauzak hobetuz doazela.